



BIDEO IKASTALDIAK

Kanaldude telebista parte hartzailea herritarrekin lanean

20 urte pasa dira Kanaldude sortu denetik. 20 urte lanean, ekoizten, ikasten, esperimentatzen, gogoetatzen. Zer da telebista bat eta zein izan behar da bere funtzio edo betebeharra? Galdera zabala, baina Kanalduderentzat zalantzarik gabe herritarrekilako hurbiltasuna da gakoa. Hurbiltasun hori era ezberdinetan sustatzen da, batez ere edukiak molde parte-hartzailean ekoiztuz eta bideogintza tresna demokratizatuz.

Horiek hola, Kanaldudek daraman lurralde animazio dinamikan kokatuz, zerbitzu publiko baten logikan, Kanaldudeko Lagunak elkarteak bideo ikastaldiak proposatuko ditu urte osoan zehar, Kanalduderekin partaidetzan. Ikastaldi horiek Bidarrain iraganen dira, Kanalduderen egoitzan hilabeteko lehen larunbat guziz. Bideogintzarako alor ezberdinak landuko dira, aldiro gai berezi baten inguruan.



Parte hartzea libre eta irekia da Kanaldudeko Lagunak elkartekideentzat. Besteei formakuntza egunean bertan bazkide egiteko aukera izango dute, 20 euroren truk. Aukera da ikastaro osoa jarraitzeko edo ikastaldi bat edo bestean baizik parte hartzeko.





Bideo Ikastaldiak

Hilabeteko lehen larunbat guziz

EGUNA	GAI	NORK
Azaroak 6	Kamerak: irudi eta soinu hartzea, oinarrizko ariketak	Eki Pagoaga
Abenduak 4	Irudiaren teoria: kuadroa, mugimendua, muntaketa	Haitz Aldana
Urtarrilak 8	Nola sortu erreportai bat	Pantxika Maitia
Otsailak 5	Soinua: praktika aurreratua	Kristof Ayez
Martxoak 5	Irudia: praktika aurreratu	Mathieu Gouilliard
Apirilak 2	Muntaketa: oinarrizko ariketak	Haitz Aldana
Maiatzak 7	Montage : exercices avancés	Mathieu Gouilliard
Ekainak 4	Hedapena eta bideo formatuak	Eki Pagoaga
Uztailak 2	Multikamerak: inimizazio bat	Kristof Ayez

EGITARAUA

9h30-10h00: Kafea eta solasaldiak, Kanaldudeko berriak: Azken hilabeteko lanak, galdera, ohar, bideo begiratze, ideia trukatzeko, ondoko proiektuak.
10h00-13h00: Eguneko ikastaldi gaia.

BIDEO IKASTALDIETAN PARTE HARTZEKO

KLIK HEMEN IZENA EMATEKO

Kanaldudeko Lagunak elkarteko kide egiteko
[egin hemen klik!](#)

[KANALDUDE]

Eta ez ahantz! Kanaldude sustengatu dezakezu!

<https://kanaldude.eus/sustengatu>

Sustengatzeko aukerak:

**Aldi
bakarrekoa**

Aldi bakarrekoa eta
borondatezkoa

Hilabetero

6€-ko laguntza

eman hilero

Urte betero

60€-ko laguntza

eman urtean behin